



## 2020ko HIZKUNTZA-ESKAKIZUNEN DEIALDIA

**Matrikulazio epea:** 2020ko urtarrilaren 20tik 30era.

**Izen-ematea:** internet bidez, ondorengo helbidean:

<http://www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara>

Eskatzen den dokumentazioa Lurralde Ordezkaritzan aurkeztu beharko da matrikulazio epearen barruan. Bestela, eskaera baztertu egingo da.

**Agiriak:** lan kontratua, konstantziarik ez dagoen kasuetan bakarrik entregatu beharko da; ikasketen titulazioa, Bigarren Hezkuntzan Gaitzeko Masterra edo baliokideak.

### **Baldintzak:**

**HE2:** 2018-2019 edo 2019-2020 ikasturteetan EAEko ikastetxe publiko edo pribatu baimendu batean lanean aritzea edota herri-ikastetxeen ordezkapen-zerrendetan egotea.

**HLEA:** Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezitzaileei eskatzen zaien titulazioak izatea edo lan-legepeko hezitzaile moduan lan egitea EAEn edo ordezkogaien zerrendan egotea.

Matrikula betetzean arazorik izanez gero, Zuzenean zerbitzura jo zenezake (tel. 012). Euskal Autonomia Erkidegoa ez den beste leku batetik deitzeko, 945 018 000.

**Behin behineko zerrendak:** hezkuntza web orrialdean argitaratuko dira.

**Erreklamazioak:** behin behineko zerrendari erreklamazioa egiteko (argitaratu eta hiru egunera), “epaimahai aztertzailearen lehendakariari” zuzendu behar zaio eta lurralde ordezkartzan aurkeztu.

### **OHARRAK**

Hainbat pertsonen titulazioa edo kontratua Hezkuntza Ordezkaritzan jasota daude (jadanik lanean ari direnak, ordezkakoak, etab.); hortaz, irakasle eta hezitzaile horiek ez dute dokumentazio osagarriarik aurkeztu beharrik.

Hizkuntza eskakizunen bat lortuz gero, Hezkuntzako fitxategian jasota geldituko da; hala eta guztiz ere, eskuragarri egongo da langilearentzat.

Deialdi itxiko irakasleen izen-ematea: matrikula, dagokien IRALEko irakastegian egin beharko dute, edota Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan.

Argibide gehiagotarako, sartu ondorengo helbidean (<http://www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara>) edo jarri Hezkuntza Ordezkaritzarekin harremanetan.

[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus